

Eskerrak

Kati ITZAINA

Entzun ditugun mintzaldiek erakusten ahal dute garbiki, gure ttantta ez dela, bere bizian, geldirik egon! Nere lagun batek, haren gorputzaren aintzinean zioen bezala: "Zerbait mugiturik joan da, mundu huntarik".

16 urtetan, Hazparneko eskolan erakasle hasi eta, erakasle egon da, erran nezake, bururaino, 89 urteak arte!

Hemen azpimarratu nahi nukeena da ere bere fedearen ize-
nean, Elizaren zerbitzuko ereman duen saila eta zer mitxarekin!

Nahiz ez dakigun nola ikusten den gain hartarik, pentsatzen dut omenaldi hau begi onez ikusten duela; baldintza batekin haatik: bera ez baitzen gibelera behatuz nigarrez ari diren hauietarik, segur naiz, egun hau onartzen duela, berak eman etsenplua gisa hortako bertze egintza ainitzen iturri izaitekotan.

Dena den, eskerrak zueri: hemen zuen mintzaldia egin duzuen guzleri, zueri Pierre Lascaray eta Daniel Landart, egun hunen lehen bultzatzaile izan zireteneri; Euskaltzaleen Biltzarrari eta lehenik, hunen lehendakari Piarres Aintziarti, Herriko Etxeari, gure Jaun mera R. Gamoy-i, mezaz arduratu diren guzleri eta hunarat denak utzirik etorri zirezten guzleri!